



ERRENTERIAKO UDALA

UDALBATZAREN OSAERA

UDALBATZARRA

BATZARKIDEAK: 21 zinegotzi, 2015eko maiatzaren 24ko Udal Hauteskundeetan hautatuak izan zirenak, eta beren karguak Udal Korporazioa eratzeko 2015eko ekainaren 13ko Udal Plenoan hartu zutenak:

Udalbatzaren osaera

Zerrenda honetako datuek zein datari egiten dioten erreferentzia

2015/06/13

ALKATEA	
Izena	Talde politikoa
Julen MENDOZA PÉREZ	EHBILDU

ZINEGOTZIAK	
Izena	Talde politikoa
Jaione KARRIKIRI GARAÑO	EHBILDU
Garazi LOPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI	EHBILDU
Eñaut GRACIA IBARRA	EHBILDU
Itziar OSTOLAZA GALDÓS	EHBILDU
Jon TXASKO ORGILLES	EHBILDU
Bernardo LEMOS TABERNA	EHBILDU
Jose Angel RODRÍGUEZ MEDINA	(PSE-EE(PSOE))
María Almudena DE LA TORRE FERNÁNDEZ	(PSE-EE(PSOE))
Isaac PALENCIA CABALLERO	(PSE-EE(PSOE))
María Teresa AZPILICUETA LLORENTE	(PSE-EE(PSOE))
Joseba ECHARTE MARTÍN	(PSE-EE(PSOE))



ERRENTERIAKO UDALA

Montserrat LUIS CANO	(PSE-EE(PSOE))
Iñaki RUIZ ALONSO	(PSE-EE(PSOE))
Yon COLLAR RIOSECO	Errenteria IrabaziZ
Jose Cruz LEGORBURU AYESTARÁN	Errenteria IrabaziZ
Nagore BASURTO ESCAMILLA	Errenteria IrabaziZ
Miguel María RODRÍGUEZ BARBERO	Errenteria IrabaziZ
Maite PEÑA LÓPEZ	EAJ/PNV
José Manuel FRANCO INSAUSTI	EAJ/PNV
Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA	EAJ/PNV

UDALBATZEN ALDIZKOTASUNA

ALDIZKOTASUNA:

Bere ohiko bilkuren aldizkotasunari buruzko erabakia [Udal Plenoak 2015eko ekainaren 18an egindako bilkuran](#) onartu zuen.

UDALBATZARREN ESKUDUNTZAK

Udalbatzarra, zinegotzi guztiek osatua, Alkateak zuzentzen du eta bera da burua.

Eskuduntza hauek dagozkie Udalbatzarrari:(7/1985 Legeko 22. artikulua eta indarreko legedia)

- a) Gobernu organoak kontrolatu eta fiskalizatzea.
- b) Udalaz gaindiko erakundeetan parte hartzeari buruzko akordioak hartzea; udalerria aldatzea; 45. artikulua aipatzen dituen udalerriri eta entitateak sortu edo deuseztatzea; organo deskontzentratuak sortzea; udalerraren burutasuna aldatzea eta haren edo Entitate horien izena aldatzea eta haren bandera, ikurrina edo armarrria hartu edo aldatzea.
- c) Planeamendu orokorra hasiera batean onartzea eta hirigintza legerian aurreikusten diren planen eta gainerako antolaketa tresnen udal tramitazioa amaitzeko onartzea.
- d) Araudi organikoa eta ordenantzak onartzea.
- e) Zerga izaerako norbere baliabideak zehaztea; aurrekontuak onartu eta aldatzea; gastuen erabilera, bere eskumenerako gaitan, eta kontuak onartzea; hori guztia Toki Ogasunen Legean xedatutakoaren arabera.
- f) Zerbitzuak eta municipalizatzeko espedienteak kudeatzeko moduak onartzea.
- g) Beste herri administrazio batzuek egindako eskumen eskuordetzea onartzea.
- h) Beste herri erakunde batzuei eta gainerako herri administratiboek eskumen gatazkak planteatzea.
- i) Langileen plantilla, lanpostuen zerrenda onartzea, ordainsari osagarrien, finkekoen eta aldizkakoaren



ERRENTERIAKO UDALA

zenbatekoa eta aldi bateko langileen kopurua eta erregimena finkatzea.

j) Egintza judizialak eta administratiboak erabiltzea eta Udalbatzaren defentsa udalbatzarraren eskumeneko gaitan.

k) Udalaren egintzen kaltegarritasunezko deklarazioa.

l) Jabetza publikoaren ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzea.

m) Kreditu operazioak hitzartzea, horien zenbateko pilatuak, urtealdi ekonomiko bakoitzean, aurrekontuaren baliabide arrunten %10 gainditzen duenean, diruzaintzakoak izan ezik, uneoro operazioen zenbateko pilatuak gainditzen duenean aurreko urtealdian likidatutako diru-sarrera korronteen %15, hori guztia Toki Ogasunak arautzeko Legean aurreikusitakoaren arabera.

n) Mota guztietako kontratazioak eta kontzesioak egitea, aurrekontuaren baliabide arrunten %10 gainditzen dutenean, eta edozein kasutan ere, 6.000.000 euroko kopurua gainditzen dutenean, eta urteanitzeko kontratuak eta kontzesioak, lau urte baino luzeagoak direnean eta urteanitzekoak iraupen txikiagokoak, urtealdi guztietan pilatutako zenbatekoak portzentaje hura gainditzen duenean, lehen urtealdiko aurrekontuaren baliabide arruntei buruz eta, edozelan ere, hizki honetan adierazten den zenbatekoa baino handiagoa denean.

o) Obra proiektuak eta zerbitzuak onartzea, horiek kontratatu edo emateko eskumenduna denean, eta oraindik aurrekusi gabe daudenean aurrekontuetan.

p) Ondasunak eta eskubideak erostea, aurrekontuaren baliabide arrunten %10 gainditzen duenean horien balioak, eta, beti ere, 3.000.000 euro baino handiagoa denean, eta ondare saltzeak daudenean kasu hauetan:

1.- Balio historiko edo artistiko deklaraturik dauden ondasun higiezin edo ondasun higigarriak izan eta aurrekontuan aurreikusita ez daudenean.

2.-Aurrekontuan aurreikusita egon eta ondasunak erosteko adierazitako portzentaje eta zenbatekoak baino handiagoak direnean.

q) Udalbatzarrari egokitu behar dakizkiokeen beste batzuk, gehiengo berezi batek onartu behar ditu eta.

r) Legeak berariaz ematen dizkion gainerakoak.

Era berean, Udalbatzarrari dagokio alkateari egindako zentsura mozioaren botazioa eta alkateak berak planteatutako konfiantza arazoari buruzkoa; hauteskunde legeria orokorrean xedatutakoak agintzen du hori guztia.

Udalbatzarrak bere eskuduntzen erabilera eskuordetu ahal dizkie Alkateari eta Tokiko Gobernu Batzarrari, 2. zenbakian, a), b), c), d), e), f), g), h), i), l) eta q), eta 3. zenbakian aipatutakoak izan ezik. Horrela, [Udalbatzarraren akordio bidez Alkateari eta Tokiko Gobernu Batzordeari eskuduntzak eskuordetu zaizkio.](#)